

Ibilbidea: OTZAURTE – ARATZ (1.443 m) – UMANDIA (1.225 m) - ARAIA

Otzaurten (640 m) hasiko dugu ibilaldia. Ipar-mendebal norabidean pista jarraituko dugu. GR-121 eta GR-12en marka zuri-gorriak Sandratiraino bideratuko gaituzte. Aurrez Beundetik pasatuko gara. Hemen AÑABASO (964 m) mendira igotzeko bidea jarraituko dugu. Tontor honetatik panoramika eder bat ikus daiteke. Ondoren Aldaolako lepora jaitsi eta Sandratirako igoera hasiko dugu. Pasagune estrategiko honetan egiten ari diren arkeologi indusketa lanak bertan zeuden gaztelu eta eraikinen aztarnak bistaratu ditu.

Pagadian barneratzen den galtzada jarraituko dugu. Laster, bidearen ezkerrean dagoen iturri parean galtzada utzi eta honen ondoan dagoen zidor estuan gorantz segituko dugu. Pagaditik irten eta gutxira ARGORRIko (1.283 m) buzaira iritsiko gara, Elurzuloak mendiaren oinean dagoen kareharrizko muinoa da. Ondoren aldapa gogor bat igo eta ELURZULOAK (1.432 m) tontorraren buzaira iritsiko gara. Bista ederrak dituen gailur-lerroa jarraitu eta minutu gutxitan ARATZ (1.443 m) mendiaren puntan izango gara. Ibilaldiko mendi garaiena eta begiratoki ederra.

Mendi honetatik aurrera Hego-ekialde norabidea segitu eta Altzaniako mendizerrako tontor aipagarrienetara igoko gara. Ibilbideak pago eta kareharrizko harkaitzak nahasten diren inguru eder bat zeharkatzen du. Lehenik eta behin malda aldapatsu bat jaitsi ondoren Aratzarteko lepora iritsiko gara, handik IMELEKUko (1.318 m) tontorrera igotzeko.

Jaitsiera berri batek Allarteko lepoan utziko gaitu. Beste aldapatxo bat eta ALLAITZ (1.245 m) mendira igoko gara. Hurrengo jaitsiera eta dagokion igoera bete ondoren ALLAITZ-TXIKI (1.172 m) tontorrean izango gara.

Beti Hego-ekialde norabidea mantenduz eta markatutako zidor estua jarraituz Atabarrateko (1.092 m) lepora jaitsiko gara. Hemen eguneko azken tontorrera igotzeko azken aldapa hasiko dugu. Pagadi polit batean gorantz UMANDIA (1.225 m) mendiaren tontorreraino joango gara.

Araiara jaisteko Atabarrateko lepora bueltatuko gara. Lepoan ezkerrean joan eta mendizerraren Hego isurialdean beherantz hasiko gara. Bidea balizatuta dago eta Araia herriraino bideratuko gaitu.

Recorrido: OTZAURTE – ARATZ (1.443 m) – UMANDIA (1.225 m) - ARAIA

Comenzamos el recorrido en Otzaurte (640 m). Siguiendo la pista comenzamos a ascender en componente Noroeste. Las marcas rojas y blancas de las GR-121 y GR-12 nos guiarán hasta la cueva de Sandrati. Previamente pasamos por Beunde, donde comenzaremos la ascensión a AÑABASO (964 m). Desde esta cima se puede observar una bonita panorámica. Bajamos al collado de Aldaola e iniciamos el ascenso al paso de Sandrati. Excavaciones arqueológicas han dejado a la vista los restos del castillo y edificios que había en este paso estratégico.

Continuamos por la calzada que se interna en el hayedo. Pronto, junto a la fuente que hay a la izquierda dejamos la calzada y por la izquierda ascendemos por un estrecho sendero. Poco después de salir del hayedo llegamos al buzón de ARGORRI (1.283 m), promontorio calizo al pie de la cota de Elurzuloak. Ascendemos un fuerte repecho y alcanzamos el buzón de ELURZULOAK (1.432 m). Continuamos por la cresta con unas magníficas vistas y al cabo de unos minutos llegamos a la cima de ARATZ (1.443 m). La cima más elevada de la jornada y espléndido mirador.

A partir de esta cima continuamos en componente Sureste y recorremos las cimas más significativas de la Sierra de Altzania. El recorrido discurre por un hermoso paraje donde se entremezclan los hayas y las rocas calizas. Primeramente en un pronunciado descenso bajamos al collado de Aratzarte, desde donde ascendemos a la cima de IMELEKU (1.318 m).

Un nuevo descenso nos deja en el collado de Allarte. De nuevo otro repecho y llegamos a la cima de ALLAITZ (1.245 m). Una nueva bajada y otro pequeño ascenso para alcanzar la cima de ALLAITZ-TXIKI (1.172 m).

Manteniendo siempre la componente Sureste y siguiendo el estrecho sendero balizado bajamos al collado de Atabarrate (1.092 m). Desde aquí iniciamos la ascensión a la última cima de la jornada. Subimos por el bonito hayedo hasta alcanzar la cima de UMANDIA (1.225 m).

Para descender a Araia, primeramente retrocedemos hasta el collado de Atabarrate. En el collado giramos a la izquierda y comenzamos a descender por la vertiente Sur de la sierra. El camino está señalizado y nos conducirá hasta la localidad de Araia.